

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/4/4 | 361

- 🌀 Eider Elduaian eta Joxe Agustin Arrieta
- 🌀 Xabat Laborde
- 🌀 Irura Ikastolaren aldeko V. Ñañañari Rallysprinta
- 🌀 Itxaso Martin, Ni, Vera
- 🌀 Iñaki Zubeldia

Box.a, sorkuntza
elkarlanean garatzeko
kolektiboa



🌀 Aritz Larreta eta Txomin Azpirozekin solasean

FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 00 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73

The advertisement includes two small photographs of modern, multi-story buildings, one in Tolosa and one in Villabona, which are the premises of the funeral home.




LARRE-GAIN

Bertako sagarrarekin
egindakoa



Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

Zure lente
progresiboekin

MARKAKO
montura
DOAN

Ezartzen hasi behar duzu izango du 2013/01/15era arte. Kontuztu izateko erabilian, kargamaren ezagueriak. Ezin du gila bera beste promozio batuekin.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonia: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: 55-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Box.a, sorkuntza elkarlanean garatzeko kolektiboa

Sorkuntza artistikoa modu kolektiboan lantzen duen taldea da Box.a. Diziiplina ezberdinetan jarduten duten pertsonak elkartzen dira Tolosako San Esteban auzoan horretarako egokitu duten gunean. "Do it yourself" filosofia dute helburu eta oinarri: edonoren sormen lanak gauzatzeko nahiko azpiegitura izatea. Horretarako, sormena eta elkarlana uztartzen dituzte.

8-11. orrialdeak

Aritz Larreta (Amezketeta, 1982) eta Txomin Azpiroz (Anoeta, 1990) begiraleak dira Euskal Udalekuetan, Bernedon (Araba). Boluntarioak dira euskara giltzarri duen udalekuetan, euren egitekoa bizi egiten dute. Apirilaren 13a bitartean izena ematea zabalik dagoela probesturik euskal udalekuez mintzatu dira Galtzaundirekin.

Elkarrizketa: Aritz Larreta eta Txomin Azpiroz

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Eider Elduaen eta Joxe Agustin Arrieta	4-5
	Normalizazioa: Xabat Laborde	6-7
	Eskualdeko albisteak: Irura Ikastolaren aldeko V. Nañañari Rallysprinta	12-13
	Irakurlearen begietatik: Itxaso Martin, Ni, Vera	17
	Kultura: Iñaki Zubeldia	18-19



Eider Elduaen Olazar
Tolosaldeko Bilgune Feminista

4

Feminismoa ez dago krisian. Argi geratu da hori Leitzan egin berri ditugun *Emakume Abertzaleon V. Topaketa Feministetan*. Euskal Herri osotik etorritako 600 emakume elkartu gara herri honen etorkizunaz eztabaidatu eta eraiki nahi dugun geroa balore feministetatik nola erein eztabaidatzeko. Polita izan da, oso polita eta aberasgarria, batik bat, emakume belaunaldi ezberdinak eta bereziki hainbeste emakume gazte, gogotsu egiteko prest ikustea. Besarkada iraultzaile bat denoi, neskak!

Hamaika egiteko ari gara!

Asko izan dira ordea, ezizkiariena egin eta garrantzia kendu nahi izan diotenak hitzordu honi, tartean hainbat komunikabide. Oro har, ez dute inolako jarraipen berezirik egin, *Topatu.info* gazte sortzaileek bultzatutako atariak izan ezik. Gainerakoan hutsuneak nabarmenak izan dira. Lehen mahai inguru nagusian, "Prozesu demokratikoa eta emakumeon hitza: han eta hemen" gaiaren bueltan elkartu ginen eta Palestina eta Ipar Irlandatik etorritako bi ordezkariaren ahotik hango esperientziak bildu eta jarraian gure errealiterara ekarri genituen. Topaketei amaiera emateko berriz, "Independentzia dugu bidea, eta helburua: Euskal Herria feminista" hausnarketaren jiran aritu ginen. Ez al da albiste, are gehiago Euskal Herrian zabaldu den abagune soziopolitikoan, 600 emakume abertzalek gai hauei heldu eta ondorio zehatzak ateratzea? Ez al du albistegi bat, edo egunkari bateko atal politikoa zabaltzeko adina mamirik? Ba, antza, askorentzat ez. Eta zer esanik ez EITB Euskal Irrati Telebista Publikoarentzat. Euskadi Irratian eskaini zuten elkarrizketaren bat, bai, baina EITBren logoa zeraman mikrofono eta kamerarik ez genuen ikusi Leitzara gerturatu ginenok. Eta ondorioz, gaurkotasunaren jarraipena egiteko Euskal Telebista erabiltzen

duena ez zen enteratu ere egin Leitzan asteburu hartan gertatu zen guztiaz. Beste behin ere ikusezin bilakatu gaituzte, euskal jendartearen zati esanguratsu batek hiru egun horietan egindako lana ezkutatu du hedabide publikoak. Ondorio hau eta beste asko atera genituen topaketetako larunbat arratsaldean egin genuen *Emakume kazetari-sortzaile feministen Asanbladan*. Bada zer iraulia eta zer exijitua gure komunikabideetan ere. Bide batez, eskerrak hedabide honi, Galtzaundi aldizkariari, topaketei buruz eta Bilgune Feministaren hamargarren urteurrenari buruz egindako erreportajeagatik.

Ildo asko dira zabalik ditugunak. Hamar urtez aritu da Euskal Herriko Bilgune Feminista lanean baina hamaika egiteko segitzen dugu jardunean. Izan ere, gehiago dira erronkak betetako urteak baino. Topaketa hauek argi erakutsi diguten bezala, gure borroka eta gure baloreak ez daude krisian eta ezinbestekoa izango da feminismoaren ekarpenak jasotzea gure herriaren eraldaketa benetako izan dadin. "Herri bat ez da askea izango, bertako herritarrek aske ez diren bitartean" dio esaldiak eta beraz, emakumeon eta feministon parte hartzea beharrezkoa izango da jendarte eredu berri bat sortzeko. Oroimena garen bezala ametsa ere bagarelako!

Zure artelana

Bakoitzaren historia artelana da. Bakoitzak badu bere argia, bere aura, nortasun argia, argi autonomoa, argi bizia, argia eman, argia zabaldu...ez ote gabiltza ahalegin honetan? Ona da bilaketa horretan nori -zer galdetua edukitzea: lagun bat, ezagutzen zaituen bat, bide bera egin duen bat, liburu bat, bilera bat, ardura berri bat...Bizitzako detaile txikiak oso garrantzitsuak dira: barrutik sortzen den animo hori, lagunari ematen diozun aupada hori, maite zaituen batek ematen dizun musu hori, sentitzen duzun babes hori, seme-alabari begiratzeak sortzen dizun poz eder hori.

Hona hemen urtealdi honetan -beherapenak igaro berriak ditugu- egin ditzakezun/ditzakegun opari batzuk; ez duzu dirurik gastatuko, aparte-koak dira eta bihotzez eskertuko dizkizute:

- Entzun: Egiaz entzun, moztu gabe, aharrasi egin gabe, kritikatu gabe. Eta bere kezak, ardurak edo arazoak kontatzen dizkizun pertsonaren lekuan jartzen bazara, ezin hobeki ariko zara.
- Adierazi maitasuna: Eman besarkadak eta musuak, esan hitz atseginak, luzatu eskua. Ekintza txiki hauekin zure familiarekiko eta adiskideekiko maitasuna adieraziko duzu.
- Egin irribarre: Bete zure bizitza irribarrez, marrazkiz, karikatuz eta irudiz, eta zure opariak "zurekin irribarre



Joxe Agustin Arrieta Egiguren
Irakaslea

Badakit gehiegi esatea izan daitekeela. Gezurretan edo txantxetan ote nabil? Nik ez dizut krisiaz, edo politikaren gorabeheraz idatziko. Bakarrik zeure barruko onena plazaratu nahi nuke eta animatu aurrera egiten. Zeure onena ateratzen jarrai dezazun, inguratzen zaituzten/gaituzten eta geure beharrea dauden pertsonekin partekatzen segi dezagun. Bilatu zeure argia, zeu baitzara izar. Ez nabil txantxetan.

- egin nahi dut" adieraziko du.
- Idatzi oharrak: "Eskerrik asko lagundu didazulako" nahikoa izan daiteke. Honelako gauza txikia bizitza osoan gogora daiteke eta, beharbada, inoren bizitza ere alda dezake.
- Izan adeitsu: "Jantzi horrekin zoragarri zaude", "primerako lana egin duzu", "zure laguntza gabe, ez nukeen hau inoiz amaituko", "afari bikaina izan zen"...horrelako esaldiek, bihotzez esanez gero, egun arrunta berezi

- bihur dezakete.
- Egin mesede: Saia zaitez egunean mesede bat egiten, eta gauzak "mesedez" eskatzen.
- Eman eskerrak: Besteak ondo sentituko dira "eskerrik asko" edo "hauxe zortea nirea, ondoan zaitudalako" esaten badiezu.

Jakinean gaude arazoak ugari eta handi direla. Zer egin dezakegu? Guk, orain, gutxitxo, baina beti zertxobait. Izan gertuko eta solidarioa. Ez da gutxi.

Xabat Laborde: “Euskaldunok beste hizkuntzekiko jarrera sumisoegiak izan ditugu”

Euskaraz Bizi Eguna ospatu berri dela, Galtzaundik Xabat Laborderi, Euskal Herrian Euskaraz herri mugimenduko kideari, ospakizun eta aldarrikapen egunaren balorazioa eskatu nahi izan dio. EHEk 2012rako aurreikusita dituen ekimenen berri ere eman du Labordek.



6

Erredakzioa

Zer nolako balorazioa egin du Euskal Herrian Euskaraz-ek Donostian ospaturiko Euskaraz Bizi egunaz?

Oraindik behin betiko balorazioa ez dugu egin baina oso pozik gaude izandako harrerarekin. Goizetik hasita jendearen parte hartzea oso handia izan zen, guk espero genuen jendetik gora ibili zen egun osoan zehar, gehien bat goizean baina baita iluntzeko kontzertuetan ere –Skakeitan, 3gabe2 eta Betagarri-. Oso pozik gaude.

Egunak aldarrikapenerako tartea ere izan zuen “Euskalduna naiz eta harri nago” lemapean ospatutako manifestaldi nazionala medio. Nola hartu zen lelo eta mezua?

Oso ondo. Manifestaldian zorte txarra izan genuen, euriak harrapatu zuelako. Baina hala ere, milaka pertsona bildu ziren eta oso pozik gaude. “Euskaldu-

na naiz eta harro nago” leloa eta horren atzetik dagoen mezua oso ondo iritsi da jendearen-gana. Azken finean, gaur egun euskaraz bizitzeko, harrotasun puntu bat beharrezkoa delako. Euskaldunok erdaldunekiko eta beste hizkuntzekiko jarrera sumisoegiak izan ditugu askotan eta horri buelta ematea da mezuak zabaldurikoa. Harrotasunez, harrokeriarik gabe guk gure bidea egitearen mezua zabaldu nahi genuen. Ikusi dugu jendearen iritsi dela eta horregatik pozik agertu behar dugu.

Zer nolako aldarrikapen eta eskaerak luzatu ditu EHEek? Zer behar du euskarak dagokion estatutasa lortzeko?

Aldaketa asko behar ditu euskarak Euskal Herriaren berreuskalduntze bide horretan. Azpimarratzekoa da lehentasuneko estatusa eman behar zaiola euskarari, diglosi egoera

honekin amaitzeko eta minorizatua egote horri amaiera emateko. Zentzu horretan, EHEetik Euskal Herriak hizkuntza politika burujabe bat behar duela aldarrikatzen dugu, beti ere Euskal Herriaren berreuskalduntzea helburu izango duena. Kanpo esku-hartzerik gabe, guk erabakitzeko hizkuntza politikan, euskararen aurrerabidean zer pauso eman daitezkeen.

Aurreko Euskaraz Bizi egunak Etxarri-Aranatzen eta Gernikan ospatu dituzue, oraingoan hiribururako saltoa eman duzue...

Bai berezia izan da, pauso handi samarra izan delako, herri txiki hauetan antolatetik Donostia bezalako hiriburu batean antolatzera. Aldaketa asko eskatu digu; paperak, burokrazia... Beste alde batetik, jende gehiagorengana zabaltzeko aukera eskaintzen zigun, Donostiara joatea beste herri batera baino errazago gerturatuko zen jendea. Hala ere, esperientzia positiboa

izan da. Donostian jende pila bat ibiltzen da eta bertan zebilenak ikusitakoa ikusita zer gertatzen zen galdetuko zuen.

Hiri handi batean euskaraz bizi daitekeela ere erakutsi nahi zenuen?

Bai, hori ere gure helburuetako bat zen. Hirietan ere euskaraz bizitzeko pausoak eman nahi ditugula adieraztea, alegia. Hala ere, oraindik hirietan eta Donostian, nahiz eta hegoaldeko hiribururik euskaldunena izan, euskaraz bizitzeko ezintasun oso handiak ditugu, esparru askotan euskara bigarren mailako hizkuntza moduan oraindik baztertuta dagoelako.

Hala ere, Donostian milaka euskaltzale daude eta euskaraz bizitzeko borondatea agertzen dute, euskaldunak dira eta harro daude. Euskaraz Bizi egunean kaleetan ikusi genituen eta argi geratu zitzaigun Donostian gizartearen zati handi bat euskalduna dela, euskalduna izateaz

Irakurle Taldea: Apirileko tertulia


Eguna: Apirilak 19, osteguna

Ordua: 19.30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Irakurri beharreko liburua: "Suite frantsesa"

Irène Némirovsky

Galtzaundi 
12ko apirilak 4

harro dagoela eta euskaraz bizitzeko pausoak emateko prest dagoela.

Hizkuntza jokabideen tailerrak ere ospatu ziren. Zer nolako jarrirei erantzuna eman behar zaie?

Oso interesgarriak suertatu dira; jende dezente hurbildu da tailer hauek entzun eta ikustera. Tailer hauek antolatzearekin gure helburua jarrera aldaketa egitea da. Urte luzeetan erdarak nagusi izan dira Euskal Herrian eta garai batzuetan euskara baztertua egotetik harago debekatua ere egon izan da. Horren

guztiaren ondorioz, euskaldunok badi-tugu jarrera batzuk: askotan euskara bigarren mailara eramaten dugu, nahiko sumisoak gara eta segituan erosotasunagatik hizkuntza aldatzera jotzen dugu, erdaraz mintzatzen hasten gara modu natural batean.

Tailerrek horretaz jabetzen laguntzen dute eta baita egoerari buelta nola eman irakatsi ere. Ez da beti konfrontazioa bilatu behar, erdaldunekin liskarrean ibili behar. Badaude moduak liskarrik gabe eta modu sanoa-

go batean, guk gureari eusteko eta eustezago egoera ezberdinetan gehiago mintzatu ahal izateko. Tailerrak hori azaltzen du eta bertaratu zen jendea oso gustura atera zen.

Zer nolako bestelako ekimenak prestatu dituzte EHEek datozen hilabetetarako?

Badira 3-4 hilabete "Euskaraz bizi" lemapean hainbat ekimen antolatzen gabiltzala. Mota askotako ekimenak dira, Euskaraz Bizi egun txikiak adibidez. Orain arte 7 bat herrietan ospatu izan ditugu. Gipuzkoari dagokionez, Zestoan, Zarautzen, Beasainen aurrera eramane ditugu. Euskaraz bizitzeko mezu hori ahalik eta gehien zabaltzen, herrietara eta txoko ezberdinetara eramateko ahaleginean gabiltza eta horrela jarraituko dugu udara bitartean.

Kantari Lizardiko bertso zakutoan

40 bat pertsona bildu ziren Galtzaundi Euskara Taldeak eta Lizardi Elkarrekin antolatutako Bertso Zakuto ekimeanean. Giro onean igaro zen gaua, Antton Iztuetak dinamizatuta.



ANTZA



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



CDI
Informatika
Ongizak
Dinamikak
Informatikak
Tel.: 943 673 499

COMERCIAL
IASA
INDUSTRIARAKO
HORNIDURAK
Tel.: 943 673 499

Arteka
ESKULANAK
Nafarroa Garaia
Tel.: 943 673 499



Arteka

Box.a, sorkun garatza

Sorkuntza artistikoa modu kolektiboan lantzen duen taldea da Box.a. Diziplina ezberdinetan jarduten duten pertsonak elkartzen dira Tolosako San Esteban auzoan horretarako egokitu duten gunean eta, besteak beste, norbanakoaren arteko kolaborazioak egiten dituzte. Box.aren inguruan lan dinamika indartsua sortzea dute helburu.

Igor Mujika

Box.ako kide Ibai Luke, Xabi Anuntzibai, Izaro Altuna, Alex Arozena, Joseba Mercader, Miren Menzabal, Asier Izagirre eta Aritz Muruarekin elkartu da Gal-tzaundi Box.aren nondik norakoez hitz egiteko. Arte diziplina ezberdinetatik datoz guztiak; pintura, diseinua, argazkigintza, ikus-entzu-

nezkoak,... egitetik. Beraien sormen lanak espazio fisiko berean lantzeak beste diziplinak ezagutzeko eta elkarlana sustatzeko aukera eskaini die.

Ibai Lukek azaldu digunez, "2009an sortu zen Box.a. Espazio fisikorik gabe hasi ginen. Bilkura ugari egin genituen. Garrantzitsuen,



Antza elkarlanean eko kolektiboa

dena denon artean lantzeko, espazio bat izatea zela jabetu ginen: 10 lagunekin elkar-tzen banaiz, 10 teknika ikasi-ko ditut eta nire teknika 10 lagunei erakutsiko diet. Ezagutza kolektiboa da. Espazio fisikoa behar genuen norberraren lanak aurrera ateratzeko eta, denboraren poderioz, norbera bere etxean aritzea baino interesgarriagoa dela denok elkarrekin lanean aritzea jabetu gara”.

Xabi Anuntzibaik gaineratu duenez, “interes antzekoak genituelako elkartu ginen. GKO galeriak gure artean ezagutzeko aukera eskaini zigun. Bakoitzak bere taldetxoa zuen artearen munduan eta talde ezberdinak GKon elkartu ginen. Interes berdinak iza-

nik, elkarrekin lanean hasi ginen. Gerora, jende berria hasi da etortzen, hemendik edo handik, egitasmo honen berri izan duelako”.

Alex Arozenak ere bere esperientzia kontatu digu: “surf taulak egiten eta konpontzen aritzen nintzen. Geror eta eskari gehiago nuen eta nire garajea txiki geratu zitzaidan. Leku baten bila nenbilela, Box.aren berri izan nuen eta mundu berri bat ezagutu dut. Izan ere, nire taulak egiteko espazioa izateaz gain, kolaborazio lanak egiten ditugu gure artean”.

Horren adibide, Joseba Mercaderrek utzitako taula bat konpontzen ari da Alex Arozena. Xabi Anuntzibaik lanaren alde artistikoaz arduratu da, hau da, taula mar-



gotzeaz,... Joseba Mercader, berriz, prozesu guztiaren dokumentazio lana egiten ari da, bidez grabatuz Arozenak eta Anuntzibaik egindakoa gero Internetek eskaintzen dituen bitartekoan bidez zabaltzeko. Arozenak gaineratu duenez, “gure artean oso giro ona egoteaz

gain, lana gustura egiteko baldintzak eskaintzen ditugune honak”.

Miren Menzabalek aitortu digunez, “Box.an sartu berria naiz. Pare bat batzarretara etorri naiz. Ez dut oraindik hemen nire egitasmorik garatu baina arte ederrak ikasi ditut eta Box.a egitasmo

pertsonalak lantzeko eta besteengandik ikasteko oso baliagarria dela uste dut”.

Horretan ere ados dira Box.ako gainontzeko kideak. Xabi Anuntziabaik, esaterako, hala azaldu digu: “zure kasa lan egitean mugatuago zaudete, irudimena ere mugatua duzulako. Taldean aritzean, sinergiak sortzen dira. Denok elkartzen garenean egunerokorako baliagarriak diren errekurtso mordoa ikasten ditugu”. Ideia berean sakonduz jarraitu du Ibai Lukek: “arazo bati nola aurre egin erabakitzerakoan, ezberdina da bakarrik aritzea edo hamabost ideia ezberdin izatea”. Ildo horretan, “dena pertsonalizatua dugun gizartean bizi gara: mugikorra, Facebook, Internet,... etxetik

atera gabe mundu guztia zeharkatu dezakezu eta, zure interes berdinak dituen taldea bilatzea eta modu pertsonalean konpartitu ahal izatea, handia da”, azaldu digu Asier Izagirrek.

Ikus-entzunezkoen alorrean aritzen da bera. Estudio bat du bere lanak garatzeko baina, bere hitzetan, “digitala utzi eta zerbait manuala egiteko beharra sentitzen dut. Duela hilabete inguru sartu nintzen Box.an eta elkar ulertzea, ilusioa, gogoia,... topatu ditut”.

Norberaren egitasmoak eta batzuen eta besteen arteko elkarlana garatzeko gunea izateaz gain, “Tolosa kulturizatu nahi dugu, bertan eragin nahi dugu. Adibidez, erakusleho-apaintzai-

le edo graffiti egileren bat ekarri eta beraien teknikak guri erakutsiz”, Izaro Altunak esan digunez.

Etorkizuna

Izan ere, eta Xabi Anuntziabaik azaldukoaren arabera, “norbanakoaren arteko milaka egitasmo daude, barrukoak, gure artekoak baina gure egitasmorik handiena espazio fisiko honi bizitza ematea da, lan dinamika indartsua sortzea Box.aren inguruan. Sartu ginenean, gune hau hilik zegoen. Orain, aldez, funtzio bat betetzen du. Hemendik aurrera zer izango den gure esku dago. Gure nahia, hemen lan dinamika bat sortzea da, jendea bertaratzea eta ideiak,... proposatzea, elkarrekin ikasi, sortu

eta deuseztatzea,... hori da eskuartean dugun egitasmorik handiena”.

Bide horretan, besteak beste, serigrafia tailer bat eskaini dute. “Serigrafia denontzako eskuragarri izatea nahi genuen. “Do it yourself” filosofiari jarraituz, norberak bere kamisetak,... egiten ikasteko aukera eskaini genuen. 15 bat pertsonak hartu zuten parte ikastaro horretan. Egun, serigrafia lantzeko tailerra dugu Box.an. Dena, “do it yourself” filosofiarekin lantzen dugu eta gure nahia edonoren sormen beharrak asetzeko azpiegitura nahikoa izatea da”.

Xabi Anuntziabaik taldearen funtzionamendua ere azaldu digu: “bakoitzak bere kasa eta naturaltasunez bere ideiak garatzen ditu. Bakoitza bere gauzak egiten ari dela, egitasmo komunak sortzen dira. Asteroko bilkurrek, berriz, Box.ak egitasmo kolektibo bezala nola jokatu behar duen ikusteko eta gure artean gehiago ezagutzeko balio dute”. Funtzionamenduaren nondik norakoan sakonduz, “egitasmo orokorrak direnak batzarrera ekartzen ditugu eta guztion artean erabakitzen dugu. Lana batzordeetan egiten da eta ostiraletan, 20:00etan, egiten ditugun bilkuretan, talde guztiari egitasmo bakoitza zein puntutan dagoen azaltzen zaio”, esan digu.

Sormen lanak aurrera ateratzeko beharrezko dituzten






bitartekoak hemen eta han topatzen saiatzen dira. "Ahal dugun guztia birziklatu egiten dugu. Bitarteko guztiak guk egiten edo hemendik edo handik lortzen saiatzen gara. Ezinezko zaigunean soilik erosten ditugu", esplikatu digu Anuntzibaik. Eta, horretarako, hilean 10 euroko kuota jartzen dute Box.ako kideek. "Interneta ordaintzeko, guk egitea ezinezko diren materialak erosteko,...", Anuntzibaik gaineratu digunez.

Ondoko hilabeteetan Box.ak kolektibo bezala zein egitasmo

gauzatu aztertzen ari dira egun. Besteak beste, Loreak Mendianeko erakuslehio-apaintzaile Ion Ander Beloki ekarri asmo dute Tolosara. Belokik hitzaldia eskainiko du eta, berak esandakoa praktikara eramateko, tailerra antolatuko dute Box.akoek. Ibai Lukek azaldu digunez, "erakuslehio-apaintzaile moduan duen ikuspuntua ez da Tolosan duguna, eskulturatik dator eta,..." Halaber, Donostia 2016an hiriburu kulturala izango dela eta martxan jarri den Olatu talka egitasmoaren

barruan, maiatzaren 12an Tolosan, Hiri baratzak proiektua gauzatu dute, besteak beste, zaborrak biltzeko erabiltzen diren edukiontzia baratz bilakatu.

Sormena auzolanean lantzeko gunea da beraz Box.a. Eta, elkarlana eta sorkuntza oinarri dituen egitasmoa, egunez egun hazi egiten da. Norbanakoen arteko ariketa hau kolektiboen artekoa izatea lortzen bada, bihar, Tolosa Box.a izango da: elkarlanean egunez egun margotutako hiria. 



GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.

Baratzondo D 26. Ibarra

Tel.: 943 671 590.

Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorasabel. 34 Telf. 943 655 161 San Francisco. 8 Telf. 943 651 916



Apirilak 21, larunbata

Irura Ikastolaren aldeko V. Ñañarri Rallysprinta

Dagoeneko martxan da V. Ñañarri Rallysprinta. Euskadiko Rallysprinten egutegian puntuagarria bada ere, rallyak Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteari diruz laguntzea bilatzen du. Sardara motor elkartearekin elkarlanean, apirilaren 21ean, rallya Alegia, Orendain, Abaltzisketa eta Amezketatik igaroko da.



Erredakzioa

2008an Irurako Ikastolari Kilometroak festaren antolakuntza egotzi zitzaionean, rally bat atontzeko burutzioa izan zuen, diru-iturri gisa. Aurten ideia horren bosgarren edizioa ospatuko da.

Ibilbidearen nondik norakoak

V. Ñañarri Rallysprinta Alegiatik Orendaingo bidean hasiko da. Partaideak Orendaindik eta Abaltzisketatik pasako dira eta handik helmugara zuzen joko dute, Amezketatik bitartean. Guztira 10 km. eta 350 m. inguruz osatutako ibilbidea da pilotuek zeharkatu beharrekoa.

Entrenamenduak

Apirilaren 14 eta 15ean, larunbatean eta igandean, entrenamenduak burutuko dira aipatu errepede tartean. Horrenbestez, rallyaren antolakuntzatik aurreikusi bezala aipatu bi egunetan trafikoa gehituko da. Hala ere, ohi bezala entrenamendu saio hauek kontrolatuak eta abiadura normalean burutuko direla aurreratu dute antolatzailuek.

Rallyaren egunean bertan, apirilaren 21ean, atoi parkea eta parke itxia prestaturik egongo da parte hartu behar duten kotxe eta pilotuentzat, Alegiako Bazurka industriagunean kokaturik egongo da. Errepidea arratsaldeko 14.00etatik aurrera itxita egongo da trafikoa arruntarentzat eta

15.00etan hasiera emango zaio V. Ñañarri Rallysprint-ari. Lasterketa 20.00ak arte luzatuko dela aurreikusirik dago eta behin legezko kontaktak egin ondoren, sari banaketa Amezketako plazan ospatuko da.

2 sarrera bikoitzen zozketa

Galtzaundirekin harremanetan jartzen diren lehen bi pertsonak apirilaren 21eko Ñañarri Rallysprint-erako sarrera bikoitza opari jasoko dute. Ez ezazu dudarik egin, Irurako Ikastolari zure babesa erakutsi!

Galtzaundi (Nafarroa etorbidea, 6 behe. Tolosa. 943 65 50 04. erredakzioa@galtzaundi.com)

Iñigo Iñurrita: "Rallyaren helburu nagusia Irurako ikastolari laguntzea da"

2012ko edizioaren inguruko datu gehiago eskuratu asmoz Iñigo Iñurrita, Ñañañari Rallysprinteko koordinatzailea, elkarriketatu du Galtzaundik.

Dagoeneko V. urtea izanik rallyaren antolakuntza erraztu al da?

Urtero jende berdinarekin lan egiten dugunez errazagoa da. Izan ere, bakoitzak badaki zer egin behar duen. Hala ere, bada garaia erreleboa ere heltzeko! Normalen rallyaren antolakuntzari dagokionez, atalik zailena beharrezkoak diren 180 boluntario horiek lortzea da. Izan ere, bestelakoek (aparkalekuak, ibilbidea,...) urteroko lan berdina eskatzen dute eta gero eta errazagoa egiten zaigu.

Rallya Euskadiko Rallysprint txapelketaren barruan kokatzen da, 10 km eta 350 m. eta txapelketa orokorreko "rallysprintik osoena eta interesgarriena" dela aipatzen duzue. Zer da berezi egiten duena?

Gure iritziak hala da. Pilotuekin hitz egiterakoan gainera gure rallyan lehiatza oso gustura etortzen direla aipatzen digute. Ñañañari rallyak Alegiatik Orendainera bihurtu itxi asko ditu eta nahiko teknikoak da. Orendaindik Abaltziske-

tara oso azkarra da, bihurtu itxi batzuk badaude baina orokorrean oso azkarra da, eta Abaltzisketatik Amezetara zer esanik ez! Abiadura handia hartzen da.

Badira bost urte Sardara automobil-taldearekin harremanetan zaudetela. Ezinbestekoa da harreman hau antolakuntzari dagokionez?

Antolakuntzari dagokionez, federazioak rally bat antolatu eta baimena ematerako orduan automobil-talde baten presentzia eskatzen du. Hori derrigorrezkoa da. Derrigorrezkoa izateaz aparte, Sardararekin dugun harremana oso ona da eta elkarlanean oso ondo moldatzen gara. Hasiera horretan derrigorrezkoa izan zen eskuderia batekin harremanetan jartzea eta guk aurrekontuari erreparatuta heldu genion. Orain, bost urteren ondorioz, harremana oso ona da eta Sardararekin aurrera jarraitzeko dudarik ez dugu.

Rallyak duen berezitasunik handiena Irurako ikastolari laguntza eskaintzearena da?


Helburu nagusia Irurako ikastolak bere egoitza nagusia ordaintzeko laguntza eskuratzea da. Ekonomikoki buelta emate-

ko helburua du. Horixe da rallyaren helburu nagusia.

Krisi garaian murgildurik gaudela egunero gogoratzen digute, baina tankerako ekimen bat aurrera eramateko garaian krisiak eragiten al dio? Pilotu aldetik, ikuslego aldetik...?

Sarreraren prezioa bost urte hauetan ez dugu igo, 8 eurotan mantentzen dugu hasierako urtetik hona. Krisiak guri bi arlotan eragin digu batik bat. Alde batetik, kotxe "potenteak" erakartzeko garaian. Hau da, aurrekontu handiko kotxe gutxiago etortzen dira. Lehenengo urtetan World Rally Car deituriko kotxeek parte hartzen zuten, hau da, mundialean lehiatzen diren kotxeak. Kotxe hauek urte batean mundialean parte hartu eta hurrengo urtean salgai jartzen dira. Horrelako oso kotxe gutxi daude gaur egun.

Bestetik, publizitatea lortzeko orduan zailtasunak ditugu. Kartelean publizitatea txertatu ahal izateko askoz gehiago borrokatu behar da. Diru-kantitate berdineran iristeko askoz lan gehiago egin behar da. Publizitate kopuru hori guk beharrezkoa dugu. Izan ere, publizitate diru-sarrera hori gabe rallya antolatzen hastea arrisku handia hartzea da.



Uda bat, hamaika irri, euskara giltzarri

Aritz Larreta (Amezketan, 1982) eta Txomin Azpiroz (Anoeta, 1990) begiraleak dira Euskal Udalekuetan, Bernedon (Araba). Boluntarioak dira euskara giltzarri duen udalekuetan, euren egitekoa bizi egiten dute. Apirilaren 13a bitartean izena ematea zabalik dagoela probesturik euskal udalekuez mintzatu dira Galtzaundirekin.

Naiara Roldán de Aranguiz

Euskal Udalekuen jatorria 1965. urtean datza, Gipuzkoako Ikastolen arduradunek eta zenbait irakasleek "Udalekua" izenpean Barriako monasterioan euskarazko kolonia bat lehenengoz antolatu zutenean. Ikastolen mugimenduaren osagarri bezala sortu zen, ikastoletako ikasleei aisialdia ere euskaraz eskaintzeko asmoz.

Monitoreak euren

burua borondatez aurkeztu zuten gazteak izan ziren, asko eta asko irakasleak. Barriako esperimentziaren ondoren, Ozaeta, Saturraran eta Debakoak iritsi ziren. Orduan "Euskal Udalekuak" izenez bataiatu ziren 1967-68. ikasturtean. 70. hamarkadan Euskal Udalekuen talde eratzailea osatu eta helburuak eta dinamikak finkatu ziren. Ondoren Beire/Goñi, Abaigar, Antzin/Urdirotz eta Bernedoko ekimenak etorri ziren. Egun, ordea, Abaigarraren, Bernedon eta Goñin parte

hartu daiteke Euskal Udalekuen baitan.

Euskal Udalekuetako hiru etxeak azken urtean elkartu eta komunikazio plangintza bateratua adostu dute, besteak beste, ume guztiekiko helburu orokorrak zehaztuz: euskara -sentimendu bat, nortasun bat dela erakustea helburu-, euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, kultur artekotasuna garatzea, ingurunea zaintzea eta errespetatzea, hezkidetzatza sustatzea eta orenen gaintetik, ondo pasatzea.



Euskal Udalekuak 1965. urtean dute jatorria. Nolako izan zen hasierako bidea?

Aritz Larreta: Euskal Udalekuak baino gehiago Euskarazko Udalekuak sortu ziren 1965. urtean, Gipuzkoako Ikastola Elkartearen mugimenduaren baitan. Urtean zehar egindakoari udaran segida emateko sortu ziren, udan euskarazko eskaintza emateko. Aurreneko euskarazko udaleku Barrian ospatu zen Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen babesean edo aitzakian, beti ere, hasiera horietan, elizak lagunduta. Frankismo garaia zen, ikastolen sorrera garaia. Euskarazko udaleku baten beharra ikusi eta Barrian egi bihurtu zen. Hasierako helburua euskara izan zen; ikastoletan urtean zehar egindako lanari jarraipena ematea, alegia. Hasierako helburuak behintzat euskara eta euskal kultura izan ziren.

Gaur egun, helburuei dagokionez, zer da aldatu eta mantendu dena?

Txomin Azpiroz: Bizkarrezurra behintzat mantendu da; euskara. Guk suertea dugu eta 24 orduz euskaraz mintzatu gaitzke baina beste nonbaiten bizi denak ez du aukera berdina. Euskal Herri osoko umeak elkartzen dira Euskal Udalekuetan. Egunean 24 orduz euskaraz bizitzeko leku ederra eta aproposa bilakatzen dira udalekuak.

Euskara Euskal Udalekuen oinarri eta helburua da...

Aritz: Oharretan ere, euskaraz hitz egiteko gai ez den umerik, mesedez, ez bidaltzeko eskatzen dugu. Euskal Udalekuen baitan

gai honekiko eztabaidak egon dira baina erabakia hori da. D ereduan matrikulatuta egotea eskatzen da. Irizpideak jarri behar dira...

Txomin: Umeak euskaraz ez badaki, integratzeko zailtasunak izango ditu.

Aritz: Beste hizkuntzara pasatzeko joera ekidin nahi da. Bestela ere izaten da erdal girokoekin kutsatzeko joera...

Gaur egun udara partean udalekuak edonon aurki daitezke; direla erakunde ofizialek antolatutakoak, aisialdi taldeek, museoek, ikastetxeek... Baina zerk egiten ditu berezi Euskal Udalekuak?

Txomin: Bereziak dira. Hezitzaileak boluntarioak gara, inork ez du sosik ikusten, gazte jendea gara. Gertutasuna eskaintzen dugu. Umeek gertutasun hori eskertu egiten dute eta horrela adierazten digute eurekin landutako tertulietan ere.

Aritz: Lan boluntarioa da egiten duguna. Urte osoko lana da. Urtean zehar ere, udalekuetan pentsatzen eta udalekuentzat lanean dihardugu.

Txomin: Urte batean huts eginda ere udalekuetako partaide izaten jarraitzen dugu. Ez da 15 egunetan lan egitea, "x" ko-bratzea eta listo. Taldea osatzen da, taldeak lan egiten du eta giro oso onean gainera.

Urte osoko lana aipatzen duzue. Zer nolako lanak dira egin beharrekoak?

Txomin: Bernedo, gure kasua, lau txandatan antolatuta dago eta txanda bakoitzak bere antolamendua darama. Txanda guz-



tien artean etxea aurrera eraman behar da. Txanda bakoitzeko zuzendari eta koordinatzaileek bilerak adostu eta hurrengo urteari begira beharrak antzeman eta lanak banatzen dituzte.

Aritz: Etxearen mantenu eta hobekuntza lanak ere tartean izaten dira. Etxea alokairuan dugu, kontratuak inbertsio batzuk egin beharra jasotzen du. Etxea hobetu behar dugula zehazten da eta hobetzeko konpromisoa dugu. Lan horietaz aparte, funtzionamendua ere kontutan hartu behar da, baita sukaldea egokitzea, janaria erostea, botikina prestatzea, gasa,...

Txomin: Ondoren txanda bera prestatzea dagokigu. Txandan zehar egunero bilerak egiten dira, txanda bera bukatutakoan

beste bilera bat egiten da balorazio orokorra egiteko. Horren harira, hurrengo urtea prestatzen da, udaberri aldera prest izaten dugu. Aurtengo udalekuak dagoeneko prest ditugu, egun bakoitzerako ekintzak, ekintza bakoitzaren ardura nork duen... Inor ez dator gure gainetik proposamen batekin, dena gure esku dago. Detailerik txikienak ere lana eskatzen du.

Funtzionamendu aldetik nola antolatzen zarete?

Aritz: Euskal Udalekuetan hiru etxe gara: Abaigar, Goñi eta Bernedo. Etxe bakoitzaren izaera legala kultur elkartearena da. Etxe bakoitzak zuzendaria eta idazkaria ditu, edozein kultur elkartek bezala. Orain artean, ma-



Euskal udalekuak Izena ematea

Epea: apirilaren 13ra bitartean

Izena ematea: www.euskaludalekuak.org webgunearen bitartez

Udalekuak: Abaigar, Bernedo eta Goñi

Adinak: 1995-2005 bitartean jaiotakoak

Txandak: txanda aukera handia (11). Uztailaren 1ean hasi eta abuztuaren 23an amaitu.

Prezioak: 140-265 €. Egun kopuruaren arabera.

Informazio guztia www.euskaludalekuak.org webgunean.

trikulazioa elkarrekin egiten genuen hiru etxeok, baina bestela autonomoki lan egiten genuen. Aurten, lehenengoz, Euskal Udalekuen ildoak gehiago zehazteko eta adosteko asmoz, elkartu egin gara. Hiru etxeetako kideen arteko harremanak sendotze aldera, komunikaziorako lan-taldea deiturikoa osatu dugu. Irizpide, helburu eta ideiak finkatze aldera lanean dihardugu. Helburu estrategiko komunak lantzea komeni da eta.

Txomin: Lehen ere etxe denek ardatz bera zutela esan beharra dago: euskara. Hala ere, etxe bakoitzak bere aldetik funtzionatzen zuen.

Abaigar, Bernedo eta Goñiren berezitasunak, gune bakoitzaren ezaugarriak, zehaztuko?

Aritz: Goñi oso mendi aldean kokaturik dago, Andia mendizerran. Abaigarren helduagoak biltzen dira, DBH eta Batxilergo mailako gazteak. Bernedok igerilekua du...

Txomin: Udaleku batzuk antolatzeke leku oso ona da Bernedo, herrian bertan dago, edozein jolas egiterako orduan herri guztia gure gain hartzen dugu.

Zer nolako erantzuna jasotzen duzue Tolosaldeko guraso, haur eta monitoreen aldetik?

Aritz: Eskualdeko hiru hezitzaile gabiltza gaur egun Euskal Udalekuetan; gu biok eta Amezketako Imanol Artola. Beste urte batzuetan, gehiago ere izan dira. Umeei dagokionez, Euskal Udalekuetarako joera gutxi dago gure eskualdean. Bernedon, azken bi urteotan, Laskorain ikastolan nire ikasle izandako zenbait ume izan ditugu, baina, esan dugunez, Tolosaldean ez dago Euskal Udalekuetarako kultura handirik. Gainera, ikastetxe bakoitzak bere udalekuak ere izaten ditu eta...

Txomin: Dagoeneko pastela oso zatituta dago.

Zer esango zeniekete gurasoei euren seme-alabek Euskal Udalekuetan parte har dezaten?

Txomin: Aita izango banintz, dudarik gabe bidaliko nituzke. Bizi egin behar dira. Behin joanez gero, errepikatu egiten da. Ume bezala behin parte hartu nuen eta begirale lanetan bosgarren urtea egingo dut aurten.

Aritz: Honakoa nire hamargarren urtea izango da. Gasteizko lagun baten bidez begirale lanetan hasi nintzen. Gasteizko horren gurasoak Amezketara, Abaltzisketara... etorri ziren euskara ikastera, alaba ere Amezketara etortzen zen udan, eta lagun horretxan bidez parte hartu nuen lehenengoz udaleku hauetan. Urte hauetan guztietan begirale, sukaldari eta koordinatzaile lanetan aritu naiz.

Boluntario lana da egiten duzue-na. Zer eskaintzen dizue?

Txomin: Dirurik ez, baina bai poz handia. 15 egunez burbuila batean pasatzeko aukera ematen dizu; inkomunikatuta, ez telefono mugikorrik, ez internetik... Euskaraz gozatuz. Umeen kariñoa ere oso garrantzitsua da.

Aritz: Lagun asko, bizipen fuertek samar batzuk. Dena oso bizia izaten da. Umeen esker onak ere

asko betetzen gaitu. Guraso sena ere ateratzen da. Izan ere, egun horietan gu gara euren ardura-dun bakarrak.

Begiraleen perfila nolakoak izaten da?

Aritz: Egia da badagoela irakasle perfilerako joera. Euskaltzaleak. Adinari dagokionez, denetarik dago, bagaude 30 urte inguruan gabiltzanak, eta 17 edo 18 urteko gazteak ere bai.

Txomin: Denetik. Alaiak, irekiak. Begirale zein sukaldari asko eta asko fitxaketa bidez sartzten dira, pertsona ezagunak direlako, nolakoak diren bada-kigulako. Mimo handiarekin egiten dira fitxaketak eta horixe da, nire ustez, Euskal Udalekuen magiaren arrazoietakoa bat.

Urtean zehar Bernedoko Euskal Udalekua era berezi batean eza-gutzerak eman duzue, Nahixan taldearen "Bagare" abestiarekin lipdub-a prestatuz. Nolako esperientzia izan da?

Aritz: Diru pixka lortze aldera martxan jarri genuen. Euskadi Gazteko lehiaketara aurkeztu genuen. 2011ko udan Bernedo izandako umei eta euren sendikoei luzatu genien gonbita; baita gu baino lehen Bernedo ibilitako hezitzaileei ere. Jende asko animatu zen. Oso hunkigarria izan zen. Lauzpa-bost grabazio-saio egin behar izan genituen. Bezperan joan ginen prestaketa lanak egitera. Bazkaria ere bi txandetan eskaini genuen. Aurrena, umei; ondoren, helduei, begiraleok umeekin geunden bitartean. Gurasoak gustura ibili ziren, umeak libre utzita. Momentu "ñoñoak" ere egon ziren, negarrak... Politza izan zen gurasoek euren seme-alabak etxean bezala zebiltzala ikustea. Niretzat behintzat, oso egun zirraragarria izan zen.

Irakurlearen begietatik



Ione Gorostarzu
Irakurlea

“Ez dakit zer den burua galtzea baina horrelako zerbait izango da... nik momentu askotan sentitzen dudaren antzeko zerbait... desintegrazio fisikora eramaten zaituen gorputzaren eta pentsamenduaren erabateko deskonexioa...” Larri da Martina, zentzua erabat galduko ote duen... baina, jakin, ba al daki inork zer den eromena? Non ote dago pertsona “sanoa” eta “eroa” bereizten dituen lerroa? Ez dakigu, baina horren gainean dantzan dabil liburu honetako protagonista. Erori, ez erori. Eta ustez marra hori aspaldi pasa zuen liburuko bigarren pertsonaia nagusiak; Vera, Martinaren birramonak.

Itxaso Martin, Ni, Vera

Itxaso Martinen lehen liburua da honako hau; egilea ez ezagutzearekin, ezer zehatzik espero gabe hartu nuen nobela eskuartean, eta izugarri gustatu zaidala esan beharrean nago. Liburuaren ardatz, eta kapituluak bereiziz, Martinak pasa beharreko trantzeak ditugu; beldurra, ezinegona, psikologoak, psikiatrak eta psikiatrikoak aurkituko ditugu, besteak beste, buruko gaixotasunen mundu ilun eta lauso horretan.

Eskuetatik doakio bizitza Martinari, eta bere mutil-laguna, Peru, orain arte helduleku izan duen arren, geroz eta urrunago sentituko du; nekatzen, aspertzen da. Eta egoera hau azaltzeko egileak bi ahots uztartu ditu, letra mota ezberdinez bereiziaz. Batetik, narratzaile orojakile batek bigarren pertsona bati, Martinari, zuzenduz kontatzen du historia. Ahots horrekin tartekatuz, baina,



Martinaren burutazioak ageri zaizkigu, paperean islatzen dituenak zein idatzi gabe geratutakoak. Modu honetan irakurlea, edo ni, behintzat, erabat sartu naiz protagonistaren egonezinean. Aipagarria da, gainera, elkarrizketak nobelan zehar hartzen duen pisua; elkarrizketa hauek gidoirik erabili gabe txertatu ditu Itxaso Martinek, baina honek ez du irakurketa oztopatzen. Aldiz, kontakizunari

jariotasun eta arintasun bat ematen diola esango nuke, irakurketa gozatze aldera.


Martinaren ondoeza okertuz joango da lehen orrietan, eta, asko kostata, psikologoa-rengana joan ostean izuak gain hartuko dio. Orduan, baina, halako argi izpi bat piztuko zaio neskari; bere birramonaren gaitza ikertzea hartuko du berearen sendagaitzat, eta hemen nobelako denborak hamarkadetan zehar atzera egiten du. Garai hartako psikiatrikoetara, eroetxeetara, eramango gaitu kontakizunak, oso era naturalean, eta modu gordinean erakutsiko digu nola gizarteak eroak ezkutatu egin nahi zituen (dituen), lotsaz, isiltasunak sendatu ez, baina, behintzat, gure begien aurretik desagerraraziko dituelakoan. Eta guzti honen atzean, azken finean, beldurra baino dago, guztiok izan gaitzezkeelako (garelako) ero, modu batean

edo bestean, eta nahiago dugulako horretaz ez jabetu. Ez ditugu eroak ondoan nahi, ez dugu haiekin gurutzatu nahi kalean; egon daitezela urrun, gu ez gaitzaten kutsatu...

Nobela oso gustura irakurri dudan arren, aukeran, azkar samar etorri zait bukaera. Martinaren istorioan erabat murgilduta nintzenean, nobelak halako bira bat eman eta nik nahi baino lehen amaitu egin da; neure irudimenaren esku geratu da, beraz, Martina zenbateraino erotu...

Iñaki Zubeldia “Haur literatura artelan bat izan behar da”

18



Iñaki Zubeldiak (Ikaztegieta, 1945) “Haur literatura aztergai 2” liburua aurkeztu berri du. Lana 2006an argitaratutako lehen bolumenaren jarraipena da eta Egan aldizkarirako idatzitako 12 artikuluru ditu oinarri. Bere esanetan ez da haur literaturari buruzko tratatu bat, zertzelada batzuk baizik. Zubeldiak zertzelada horietan idazlearen ofizioa, liburutegien garrantzia eta literatura bultzatzeko bide berriak aztertzen ditu, besteak beste.

Naiara Roldán de Aranguiz

Ikasketaz irakasle eta pedagogo baina “Euskaldun bat Marten” 1982an argitaratzearekin haur literaturan murgildu zinen. Haur literatura barrutik ezagutu behar da kanpotik aztertu ahal izateko?

Haur literatura ezagutzea ona da baina batez ere haurren mundua ezagutzea inportantea da. Gaur egun, haur literaturako kritikoaren artean badago jendea haur mundua behar bezala ezagutu ez eta helduen irizpideekin analizatzen duena. Helduen literaturako balore batzuk agertuz gero, -feminismoa, sexismoa, etorkinak, guraso bananduak-liburua ona izango da; kontrara, tipikoak izandakoak -fantasia, umorea, abentura- azalduz gero, ez da ona izango.

Liburu honetan jasota dauden artikuluruak idazten hasi nintzenean, haur literaturari beste ikuspegi bat emateko intentzioarekin hasi nintzen; haur literatura eta haurren mundua ezagutzen duenaren ikuspegitik. Nire azterketetan oso ezagunak ez diren autoreak azaltzen dira; oso onak direnak, sariak irabazi dituztenak, umeengan egundoko arrakasta dutenak baina beharbada kritika ofizialak gogoan hartzen ez dituenak.

Haur literaturaren ezaugarrietako bat haurren mundura ailegatzen jakitea da; gaiak eta tratatzeko era ulergarri izatea, literario eta ederra izateaz gain, haurren interesa piztuta mantentzea.



Liburuak haur literatura aztergai dio, horretarako lehen pausua "haur literatura" definitzea da...

Artelan bat izan behar da. Gaur egun artea zer den jakitea oso zaila izaten da; zapatila bat zintzilik jarri eta artea dela esaten digute. Literaturan ere horrelako zerbait gertatu daiteke. Gatzduna, ondo egina eta umeen interesa mantenduko duena izan behar da haur literatura.

Juul sariketa bezalakoebi bali handia ematen diet. Umeek lanak baloratzen dituzte, liburutegietan gurasoekin liburuak aztertzen dituzte, urtean zehar irakurritako libururik ederrenak aukeratu eta botoa ematen diete. Horrelako ekimenek garbitasuna eta inozentzia mantentzen dute. Garbiena umeen botazioa da, zikinkeria asko egoten baita lehiaketatan.

Haur literatura izateko umeengan pentsatu behar da, baita adina zehaztu ere. Ez da berdina 7 urtekoentzat edo 14 urtekoentzat idaztea. Ona izateaz gain, umeen interesa eskuratu behar du.

Artikuluak idazteko garaian zer nolako hartzailak izan dituzu gogoan?

Egan aldizkarirako idatziak izan dira. Egan literatur aldizkaria jende hautatu batentzat zuzendurik dago baina haur literaturako atalaz arduratzeko eskatu zidatenean, perspektiba zabalagoa hartu nuen. Teknikoentzat baliagarriak dira baina baita irakasleentzat, bibliotekariarentzat edota gurasoentzat ere. Ulertzeko moduko artikuluak dira.

Biografiak osatzerakoan adibidez, oso pertsonalak egin ditut, biografia aseptiko hotzak izan beharrean bizipen pertso-

nalei eman diet garrantzia, haurtzaroko eta gaztaroko sententzioak jasoz. Autorea ezagutzeko oso bide inportantea da. Aztertutako autoreek euren biografia pertsonaletan eskaintzeko datuak liburu honen ekarpenetako bat da.

Zer nolako garrantzia dute ikastetxe eta haur liburutegiek haurrak literaturara gerturatzeko? -Liburuak aipamen bereziaz egiten dio Tolosako haur liburutegiari-

Kasi totala. Gaur egun liburu erostera oso jende gutxi joaten da. Eskolak funtzio hori betetzen du. Eusko Jaurilaritzak idazleak eskoletara eramatearen aspaldiko kanpaina oso garrantzitsua da. Kanpaina horren bitartez eta eskolak hartu duen arduraren bitartez, umeek irakurri egiten dute. Idazlea eskolara eraman, galderak egin eta pertsona arrunta dela ikusten dute ikasleek. Horrek eskoletan irakurteak lagundu egiten du. Baita liburuak erakargarria izatea ere; Fernando Morillo eta Aitor Arana euren liburuetan gazteak harrapatzen dituzten autoreak dira.

Liburu honetan aztertu dituzun autoreak era laburrean baloratu itzazu.

Bernardo Atxaga: Jenio bat. Baditu zenbait obra jenialtasunez josiak daudenak "Behi euskaldun baten memoriak", "Sugeak txoriari begiratzen diotenean", "Obabakoak", "Bi anai". Jenialtasun horiekin miretsirik geratzen naiz.

Aitor Arana: Autore oso "potentea" da. Ausarta, bere liburuetan heriotza batera beldurrik gabe sartzen duelako. "Amodioaren gazi-goza", "Afrikako

semea" bezalako lanetan sufrimendu asko azaltzen da, benetako sufrimendua. Horrelako gaiak sartzeak beldurra ematen du, baina berak ez dauka inolako beldurrik.

Seve Calleja: Haur literatura oso ondo ezagutzen du. Zamorako bilbotarra da, umetan etorri eta euskara ikasi du. Lehenengo haur literatura azterketa sakona berak egin zuen. Oso autore emankorra da, denetik idazten du. Batez ere pobre eta marjinalu jendearen aldeko apustua egiten du. Oso ondo idazten du, sentimendu handiz.

Ana Urkiza: Obra politak ditu. "Ondarroako piratak" eta "Ondarroako piraten abentura berriak" jenialak dira. Biziak. Kostako hizkuntzak, Ondarroako hizkuntzak sinesgarritasuna ematen die.

Iñaki Frieria: "Izaroko altxorra" bere lana gazteei izugarri gustatzen zaie. Berari buruzko aipamenik inork ez du egiten, kritiko ofizialeen idazkietan sekula ez da bere izenik ikusten baina oso narratzaile ona da.

Fernando Morillo: Fenomeno bat, gutxitan sortzen den horietakoa. Suertea izan nuen deskubritzen. Gazteentzako izugarriko imana dauka, gazte mundua ezagutzen du. Autore artean bakarrenetarikoa da nesken psikologia barruan sartu dena.

Atentzio berezia eskaintzen du "Zer da Literatura? Zer daukagu

haur literaturaren kontra?" atalak. Kritika bat baino gehiago luzatzen duzu bertan.

Amorratio pixka batekin idatzita dago. Badago joera bat haur literatura gutxieteko eta haur literatura lardaskeria dela sinesteko. Bernardo Atxagak, Anjel Lertxunik, Mariasun Landak haur literatura egin dute...

Zenbat eta obra zailagoa idatzi lana goraiatzeko joera dago. Horrek ez du obra ederragoa egiten. Adibidez, Koldo Izagirrek "eta" partikularik gabe idaztea esperimendu bat da. Lehen paragrafoa irakurtzen hasi eta ia ez nuen tutik ulertu. Hasiara horrelakoa bada nola izango da erakargarria? Jendea atzeraka botako du. Batek esfortzua egin nahi badu, penitentia delako izango da. Nik literatura disfrutatzeke irakurtzen dut. Umeak mimatuta datozela esaten da, ezer ez dutela irakurtzen esaten da. Umeek ere pausoak eman behar dituzte. Literatura ez da zenbat eta hizkuntza zailagoa egin orduan eta hobea. Literatura gauza artistikoa izan behar da, ulertzen hainbeste kostatzen ez dena.

Honakoa haur literatura aztertzeko bigarren liburuak izan da, hirugarrengoa dagoeneko pentsatzen hasia?

Ikusiko da indarrez nola gabiltzan. Baina dagoeneko ari naiz, gaiak ere pentsatuta ditut: Idoia Sanchez Tolosako ipuin kontalaria, Jasone Osoro, Imanol Urbietta -euskal kantagintza eta poesia-, Pirritx eta Porrotx, Yolanda Arrieta eta baita Barandiaran, Azkue eta Satrustegi ipuingintza tradizionala berreskuratzean egin dako lanagatik.

irakurri entzun Ikusi

Ipuin larrigarriak
Aitor Arana

Irakurleek idazleez beti jakin nahi izaten dute nondik sortzen zaizkien idazten dituzten testuak. Ipuin Larrigarriak liburua zazpi ipuin estugarrik osatzen dute, eta barne egiturari argi ikusten denez, bost irudimenaren mundutik atera eta gureganatuak dira, eta beste biak egileak berak bizi izandakoak. Ipuin Larrigarriak, urduri jartzeaz gain, zer pentsatua ematen duten literatura tantak dira.

Ez gara inoiz hilko
Eraso!

Martxoaren 22tik aurrera kaleratu da Erasoi taldearen azken lana, "Ez gara inoiz hilko", Bonberenea Ekintzak-en eskutik. 1996an sortutako taldearen bosgarren lana da. Metal iluna rockaren argitasunarekin nahastu du talde zarauzta-rrak.

Hemen nago
Maialen Sarasua

13 minutu. Huhezinezka eskal film laburren lehiaketaren IV. edizioan saria jasotakoa. Lau urterekin ez da erraza irudimena eta errealtatea bereiztea. Xalotasuna eta krudelkeriaren arteko muga ere lausoa da askotan. Garrantzia duen bakarra bizirautea da. Imanolek argi dauka eta horren arabera jokatzeko du.

hitzorduak

Apirilaren 4tik 20ra bitarteko

Kontzertua

Trizeps. Apirilak 20, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30. 8 euro. Talde donostiarraren lan berriaren aurkezpena.



Beintza-Donamaria mendi irteera. Apirilaren 15ean, igandea. Alpino Uzturrek antolatuta.

Bilbora irteera. Apirilak 14, larunbata. Ibarako Bizi-Nahi elkarteak antolatuta.

Tailerra

Bete dezagun txotxongiloz itsasoa! Apirilaren 10etik 13ra bitartean. 09.00-13.30. Tolosa, Topic. Topic-ek Donostiako Aquariumarekin batera diseinatutako tailerra. 8 urtetik aurrera. 40 euro. Donostiako Aquariumera bisita barne. Izena ematea: 943 650414 telefono zenbakian.

Aurrez aurre

Aurrez Aurre erakusketa. Apirilaren 14a bitartean. Tolosako Aranburu Jauregian.

Aurrez Aurre amaiera festa. Apirilaren 14a, larunbata. Aranburu Jauregia.

Irteerak

Teidera bidaia. Apirilaren 5etik 9a bitartean. Oargi Mendi Elkarteak antolatuta.



Mintegiak

Familia-konstelazioak. Apirilak 11 eta 25, asteazkenak. 19.30-21.00. Ibarako Bat Izan Zentroa. Mintegi bat 40 euro, biak 60 euro. Izena emateko: 659 082 895 telefono zenbakia

edo perunea@gmail.com helbide elektronikoa.

Gazte topagunea

Tolosa, Gazte Topagunea. 17.00

Apirilak 10, asteartea. Wii-a eta Play-a pantaila handian.

Apirilak 11, asteazkena. Sukaldaritza tailerra: zukuak eta batidoak.

Apirilak 12, osteguna. Kirola kalean. Skate, saskibaloia, futbola...

Apirilak 13, ostirala. Salsa tailerra.


Irakurle taldea

Galtzaundi Irakurle Taldea. Apirilak 19, osteguna. Tolosa, Kultur Etxea. 19.30. Irakurri beharreko liburua: "Suite frantsesa". Irène Némirovsky-k idatzitako eta Mikel Garmendiak eta Jose Antonio Sarasolak itzulitako.

Odol ateratzea

Apirilak 16, astelehena. Tolosa, Kultur Etxea. 18.30. Gipuzkoako Odol Emailek elkarteak antolatuta odol ateratzea.



Galtzaundi  12ko apirilak 4

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Txirbil harroketa bidezko produktu mekanizatuena egiaztatzea	2012.04.18	30
Lotura eragiketak (TIG Soldaketa)	2012.04.18	40
Soldaketako beste prozedurak (Robot bidezko soldaketa)	2012.04.18	35
Kalitate erremintak	2012.04.18	24
Aurkezpenetarako aplikazio informatikoak: Informazio grafikak (Powerpoint)	2012.05.02	30

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefona: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com info@ikastn.com
www.tolosaldea.com www.ikastn.com




Naizkara etabidea, 13 helera
24145 Tolosa
Mobiila: 494 419 422
Tel. fona: 943 651 919

Kz gunea

Albiztur. Apirilak 16 eta 30, astelehena. Kz Gunean monitorea izango da, 09.00-13.00 bitartean.



askatu ordu
arantza herri-bizirik
LURRA, TOLOSA
KALITATEA, ERREKONSTRUKTIOA
TEL. 943 651 919

Erakusketa

Arantxa Munita. Keramika. Tolosa, Aranburu Jauregia. Apirilaren 20tik aurrera.

Haur eta gazteak

Ibarra. Benito Izagirre Kultur Etxea. 17.00

Apirilak 10, asteartea. Super Txarko: Zirkuaren magoa emanaldia Begira Teatroa taldearen eskutik.

Apirilak 11, asteazkena. Marsel Magoa, magia saioa.

Apirilak 12, osteguna. Munduan entzun nuen, ipuin-kontaketa saioa.

Apirilak 13, ostirala. Bikokote antzerkia, Ttinbili Ttanbala taldearen eskutik.



Goardiako farmaziak

Ostirala, 4 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Asteazkena, 9 Iturrioz, I (Euskal Herria, 3) Ibarra	Astelehena, 14 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
Larunbata, 5 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 10 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Asteartea, 15 Azpiroz, Lourdes (Amaroz, 9) Tolosa
Igandea, 6 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Ostirala, 11 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Asteazkena, 16 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra
Astelehena, 7 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Larunbata, 12 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Osteguna, 17 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Asteartea, 8 Etxebeste, J (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Igandea, 13 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Ostirala, 18 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdiak)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 683 361	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	lurreamendi egoitza
Bidegoian	943 681 134	Larrialdiak, Suhiltzaileak
Medikua	943 681 134	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 653 329	Ertzantza
Medikua	943 653 329	Tolosa Gasa
Irura	943 690 720	Lizartza
Osasun zentroa	943 650 931	Medikua
Tolosa	943 006 800	Orendain
Anbulatorioa, Iarriald.	943 006 800	Medikua
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Orexa
		Medikua
		943 682 228



askatu ordu
arantza herri-bizirik
LURRA, TOLOSA
KALITATEA, ERREKONSTRUKTIOA
TEL. 943 651 919



ARALAR
KIROLAK
LURRA, TOLOSA
KALITATEA, ERREKONSTRUKTIOA
TEL. 943 651 919

Muxutruk

Lana

- Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68
- Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.
- Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.
- Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia
- Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 943 119839

Etxebizitza

- Pisua salgai Erremeritari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295
- Ikaztegietan 100 m2-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126
- Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112
- Ibarren, ikasleentzako gela bat alokatzen da. 943 119839

Salgai

- Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

Horoskopoa

Apirilaren 4tik 20ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Norbere burua hobeto ezagutzeko eta bertuteak indartzeko aukera. Aldaketa garaia dator, gauzak hobera joango dira; bereziki, animoari dagokionean. Garai baten itxiera eta berriaren irekiera emango da udaberriaren sarrerarekin batera.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Normalean baino amets gehiago izango dituzu, lotarako behar gehiago ere izango duzu ondorengo egunetan. Inguruko arazoak barrena sartu eta askok baino hobeto ulertuko dituzu. Ulertzeaz gain esku bat botatzea ere ez da txarra izaten!



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Elkarte batera jotzeak adiskide berriak ekarriko dizkizu. Proiektuak gizarteratzeko aukera emango dizu aipatu elkarte edo talde horrek. Norbanakoaren interesak taldearen ondoren etorriko dira.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Ohi baino gehiagotan gogoratuko zara zure amarekin. Garai bateko pertsona batzuekin berriro ere harremana hasteko aukera izango duzu gogora etorriko dira.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Egia da antolakuntzari garrantzi gehiegirik ez diozula eskaini baina batzuetan beharrezkoa izaten da. Arazoak ikuspuntu zabalago batetik aztertzeke joera hartu duzu eta hori ospatzeko da.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Sentimendu eta emozioak agerian geratuko dira, honela erlazioetan sakontzeko aukera egongo da. Lehengo garaia burura etorriko zaizkizu, samin-tasunez oroitu duzue.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Buruhausteak ez dira zuregan fokatu, besteekiko kezka azalduko zaizu. Baita loa kentzeko punturaino ere. Jardue- ra fisikoa burua arintzeko baliagarria izaten dela kontutan hartu beharko zenuke.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Noizean behin ardurak partekatzea osasungarria izateaz gain, lagunarekin harremana sendotzeko bidea ere izan daiteke. Arazoen pisu guztia ez ezazu zuk hartu, inguruko laguntza onartu ezazu.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Irudimena umeen kontua dela bururatu ohi zaigu baina zenbait lan aurrera eramateko, zein beharrezko den! Zure inguruko gogoratu beharko zenieke. Ez ezazu inoiz irudimena albo batera utzi.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Etxe barruan aldaketa garaian barnertuko zara, ez dauka zertan okerrerako izan behar, ezkontzak, jaiotzak eta tankerakoak tardean daude eta. Eskeraren bat egiteko intentziorik edota eskaera zuri helduko ote zaizu?



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Burua arin mantentzen duzu eta ikastaroak egiteko duzun joera ere datozen egunotan erne izango duzu. Inguruko ulertzeko saiakuntza berezia egingo duzu baina, hala ere, zenbait egoera ulergaitza egingo zaizu.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Daukazu kontzientzia izango zara; horrenbestez, benetan behar diotzunari baino ez diozu errepertuko. Hori lortu ahal izateko zure baliabide eta indar guztiak martxan jarriko dituzu, seguruago sentituko zara.





A P A I N D E G I A

Ilerako botox **tratamendua** eskaintzen duen Gipuzkoako apaindegi bakarra gara!

Korreo kalea, 60 - 20400 Tolosa - Telf. 943 116 456

Ilerako Botox-a, iritsi da Gipuzkoara

Ile estetikaren munduan arrakasta handia izaten ari den tratamendua da ilerako botox-a. Bere egiteke garrantzisuena, ilea lehengoratzea da: tratatuta, leuna eta oso distiratsua uzten du. "Memoria" efektua dauka eta orrazkerak gehiago irauten du.

Teknika honekin ilearen gorputza izoztu egiten da. Melenari bolumena ematen diolako, ile fina eta zertxobait ahuldua dutenak dira teknika honen onuradunak. Ile gabeziaren araberako %100 pertsonalizatua izan behar du tratamenduak. Gipuzkoa osoan, guk bakarrik eskaintzen dugu tratamendu hau jasotzeko aukera.

SUPER EKO

SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua



Lagun Aro-ren partidarako,
VIP gunean, 2 sarrera
bikoitza zozketatzen dira.



Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

HIBRIDOA & DIESELA
ARO BERRI BATEAN SARTZEN DA

CITROËN DS5 HYBRID4

KONTSUMO MISTOA (L/100KM) / CO₂ EMISIOA (g/km)
CITROËN DS5: 3,8 - 7,3 / 99 - 169
CREATIVE TECHNOLOGIE



IROVI S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G. TEL: 943 651 842 ANOETA/TOLOSA



Apirilak 7, Zatoz tolosara

- 12.00: **karakol dataketa: tolosako azokak + km 0**, Zerkausion. 2.500 karakol prestatuko ditu Astelena jabetzeko Peio Doyharzabal-ek Botarri jabetzeko Txemari Esteban-ekin batera.

- 12.30: **Karakol lasterketa**, Trianguloa plazan. Edozein herritarrek parte hartu ahal izango du. Bakoitzak bere karakola ekartzea gomendatzen da.

- 17:30: **Idi proba erakustaldia**, Gorosabel kalean. 3 idi bikoterekin egindako erakustaldia.

TOLOSAKO  UDALA  *Gogor gogor*

Urte amaierarte orri osoa edo erdia jarri nahi izanez gero,

%20ko
deskontua izango duzue!!

943 65 50 04

Zure establezimendua iragartzeko aprobetxa ezazu aukeratu hau!!

Galtzaundi zure iragarkiak plazaratzeko gertu!!



Iragarri zaituz ere hilean 4.000 bisita baino gehiago dituen www.galtzaundi.com web orrian!!!

Publizitate saila

*Nafarroa etorbidea, 6
Tolosa*

943 65 50 04

*publizitatea@galtzaundi.com
www.galtzaundi.com*